

2019an Euskal AEn ia 20.000 milioi euro gastatu ziren gizarte-babesean, aurreko urtean baino % 5,9 gehiago

Biztanle bakoitzeko gizarte-babeseko gastua 8.918 eurokoa izan zen, 2018an baino % 5,4 handiagoa

Eustaten datuen arabera, 2019an 19.564 milioi euroko gastua egin zen Euskal AEn gizarte-babesean, 2018an baino 1.094 milioi gehiago –% 5,9 gehiago–. Gehikuntza horren ondorioz, BPGren % 24,6ra iritsi zen. Erreferentziazko beste adierazlea, per capita gastua, % 5,4 hobetu da, 8.918 eurotan kokatuz.

Gizarte Babesaren Kontua egiten da Gizarte Babeseko Estatistika Integratuen Europako Sistemaren (ESSPROS) metodologiaren arabera, eta **edozein erakunde publikok edo pribatuk Euskal AEn egindako gizarte-babeseko sistemen gastua eta sarrera zenbatzen** ditu.

Gizarte-babesaren datu eta adierazle nagusiak Euskal AEn. 2010-2019

	2010	2017	2018	2019 (a)	2018/2017 (%)	2019(a)/2018 (%)
GIZARTE-BABESEKO GASTUA, GUZTIRA						
Milioi eurotan	16.092	17.835	18.470	19.564	3,6	5,9
Merkatu prezioko BPGaren %an	24,2	24,2	24,0	24,6	-0,2*	0,6*
Biztanleko eurotan	7.410	8.188	8.456	8.918	3,3	5,4
Biztanleko EAP	7.509	8.802	9.022	:	2,5	:
FUNTZIOEN ARABERAKO GIZARTE-PRESTAZIOETAKO GASTUA (milioi eurotan)						
GUZTIRA	15.775	17.578	18.221	19.312	3,7	6,0
Gaixotasuna / Osasun-laguntza	4.443	4.627	4.740	5.088	2,4	7,3
Baliaezintasuna	1.052	1.239	1.271	1.313	2,6	3,3
Zahartasuna	6.004	7.685	8.123	8.570	5,7	5,5
Umezurtz-alargunak	1.473	1.703	1.764	1.896	3,6	7,5
Familia eta seme-alabak	596	619	644	676	4,1	5,1
Langabezia	1.681	999	948	1.035	-5,1	9,1
Etxebizitzak	118	147	160	163	8,7	1,8
Gizarte-bazterkeria	408	558	570	572	2,2	0,3
ADIERAZLEAK (eurotan)						
Gizarte-prestazioetako gastua, biztanleko	7.264	8.070	8.342	8.803	3,4	5,5
Gizarte-prestazioetako gastua, biztanleko eta EAPn	7.361	8.675	8.900	:	2,6	:
"Gaixotasun / osasun-laguntzaren" gastua, biztanleko	2.046	2.124	2.170	2.319	2,1	6,9
"Zahartasunaren" funtzioan egindako gastua, 65 urteko edo gehiagoko pertsona bakoitzeko	14.304	16.163	16.816	17.470	4,0	3,9
"Langabeziaren" gastua, erregistratuta dagoen langabetuko	12.693	7.492	7.680	8.959	2,5	16,6
BPG KSE2010. 2015 oinarri (milioi euro)	66.569,4	73.697,4	76.888,2	79.445,5	4,3	3,3
Biztanleria (01-07)	2.171.536	2.178.134	2.184.233	2.193.864	0,3	0,4

(:) Datua ez dago eskuragarri

(*) aldea ehuneko puntuetan

Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua

Gizarte-babeseko gastuak barne hartzen ditu babes-sistemen kudeaketatik eta administrazioetik eratorritako administrazio-gastuak eta gizarte-prestazioetako gastua, eta


azken hori da gastuaren zenbateko nagusia. **Gizarte-prestazioek gizarte-babeseko sistemetatik familia-etxeetan jasotzen diren eskudiruzko ordainketak eta gauzako prestazioak biltzen dituzte.**

Euskal AEn **gizarte-prestazioetan egindako gastuaren** zenbatekoa 19.312 milioi eurokoa izan zen 2019an, 2018an baino % 6,0 gehiago, azken hamar urteetako hazkunderik handiena.

Gizarte-prestazioen gastuan garrantzi handiena duten funtzioak "Zahartzaroa" eta "Gaixotasuna/Osasun-arreta" dira.

Funtzioen araberako **prestazio-gastuaren** xehetasunari esker, gastua zer premiatan egiten den azter daiteke. Aurreko urteetan bezala, "Zahartzaroa" da oraindik ere funtzioa non gastu handiena egiten den, pentsioetara, mendetasunarekin lotutako prestazio ekonomikoetara eta gauzako beste prestazio batzuetara (egoitza-zerbitzuak eta etxez etxeko laguntza) bideratutako gastua barne hartzen duena. Era berean, "Zahartzaroan" egindako gastua gastuaren % 44,4 izan zen 2019an, 8.570 milioi euroekin, 2018an baino % 5,5 gehiago (urte horretan ere hazkunde handia izan zuen, % 5,7koa, eta 8.123 milioira iritsi zen).

Gizarte-prestazioetako gastuaren banaketa, funtzioen arabera. 2019 (a)



Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua

Hirugarrenik, gastuaren % 9,8 "Umezurtz-alargunak" funtzioan egin zen, alarguntza- eta zuztasun-prestazio ekonomikoak jasotzen dituen, eta 1.896 milioi eurora iritsi zen 2019an, 2018an baino % 7,5 gehiago (urte horretan % 3,6 hazi zen, 2017arekin alderatuta).

"Langabeziari" dagokionez, 2019ko gastua gizarte-prestazioetako gastuaren % 5,4 da; funtzio horrek hazkunde negatiboak izan ditu 2014tik, langabeziaren beherakadari eta langabezia-prestazioen onuradunen jaitsierari lotuta. 2018an, mailarik baxuenean kokatu zen 2008tik, 948 milioi euroekin (aurreko urtean baino % 5,1 gutxiago). 2019an, langabekopuruak murrizten jarraitu bazuen ere, "Langabeziako" gastua % 9,1 handitu zen, 1.035 milioi euroraino. Hazkunde hori, batez ere, langabeziagatiko sorospenean sartutako hobekuntzei eta ordaindutakoaren arabera prestazioen zenbatekoaren igoerari zor zaie. 2019an, langabezia-prestazioen onuradunen guztizko kopurua % 6,6 handitu zen, eta ordaindutakoaren arabera prestazioen batez besteko zenbatekoa, berriz, % 2,0.

Gainerako funtzioak ere hazi egin ziren 2019an, nahiz eta aurreko funtzioak baino gutxiago izan; "Baliaezintasuna" funtzioa % 3,3 igo zen, 1.313 milioi eurora. "Familia/Seme-alabak" funtzioak seme-alaben jaiotza eta hazkuntzarako laguntzak jasotzen ditu, eta 676 milioi euroko gastua izan zuen, 2018an baino % 5,1 gehiago. "Gizarte-bazterkeriako" gastua aurreko urtekoaren antzekoa izan zen (572 milioi euro), eta hazkunde txikieneko funtzioa gertatu zen, % 0,3 2018. urtearekin alderatuta. "Etxebizitzan" egindako gastuak zenbateko txikienekoa izaten jarraitu zuen (163 milioi euro), 2018an baino % 1,8 gehiago, noiz % 8,7 hazi baitzen.

Erakundeetako unitate taldearen eta urtearen arabeko gastua (milioi €). 2015-2019

	2016	2017	2018	2019 (a)	Urteko aldakuntza-tasa %		
					2017/16	2018/17	2019 (a)/18
Gizarte segurantzako sistema eta Estatuko administrazioa	10.480	10.815	11.236	11.926	3,2	3,9	6,1
Euskal administrazioak	5.676	5.773	5.947	6.285	1,7	3,0	5,7
Erakunde pribatuak	1.242	1.248	1.287	1.353	0,5	3,1	5,1
Gizarte babeseko gastua. Guztira	17.397	17.835	18.470	19.564	2,5	3,6	5,9

Iturria. Eustat. Gizarte-babesaren kontua


Gizarte-babeseko gastua egiten duten **erakunde-unitateei** dagokienez, **Gizarte Segurantzaren Sistemak eta Estatuko Administrazioak** egindako gastua guztizkoaren % 61,0 izan zen 2019an, eta % 6,1 hazi zen 2018arekin alderatuta, hau da, 690 milioi gehiago, batez ere "Zahartzarora" eta "Umezurtz-alargunetara" bideratutako prestazio ekonomikoak handitu zirelako.

Euskal AEko Administrazioek egindako gastua guztizkoaren % 32,1 izan zen, eta 6.285 milioi eurora iritsi zen, 2018an baino % 5,7 gehiago. **Hazkunde hori batez ere osasun-sistema publikoaren gastuaren hazkundeari dagokio**, % 7,0 hazi baitzen, 3.986 milioi eurora iritsiz. Gainerako gastua gizarte-zerbitzuen sistema publikoari dagokio, Eusko Jaurlaritzaren, Foru-aldundien eta Toki-administrazioen erakundeak barne hartzen dituen, eta 2.299 milioi euroko zenbatekora iritsi zen, 2018an baino % 3,4 gehiago.

Azkenik, **Erakunde pribatuen** gastua guztizkoaren % 6,9tan mantendu da, 1.353 milioi euroekin.

Europarekin alderatzeko, Eurostatek 2018rako argitaratutako azken datuak aztertu dira. **Biztanle bakoitzeko gizarte-babeseko gastuaren** adierazlea, Erosteke Ahalmenaren Parekotasunean (EAP) neurtuta, 9.022 izan zen Euskal AEn; horrek EB-27ren batezbestekoaren (8.709) eta Espainia (6.457) edo Irlanda (7.276) herrialdeen gainetik kokatzen du. Taularen goiko muturrean Luxenburgo (16.031) eta Danimarka (11.866) daude.

Gizarte-babesaren gastuaren adierazleak, herrialdearen arabera. 2018




Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua eta Eurostat. Social protection ESSPROS

Bestalde, **gizarte-babeseko gastua, BPGren ehuneko gisa**, Euskal AEn % 24,0 izan da 2018an, EB-27ko batezbestekoaren azpitik (% 27,9), baina Espainiaren (% 23,5) eta Luxemburgoren gainetik (% 22,6). Azken herrialde hori, lehen esan bezala, biztanle bakoitzeko gastuaren taularen lehen postuan dago.

Gizarte-babeseko gastua, guztira. Nazioarteko alderaketa

BPGaren ehunekoan



Iturria: Eustat. Gizarte babesaren kontua

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62